

1998ko maiatzak 16

Badira bihotza esku artera aterata mintzatzen diren pertsonak, eskuak guregana luzatu eta bihotza gure begien aurre-aurrean jartzen digutenak, sentimenduen bilgune likatsu eta labain horretako ñabardurarik ñimiñoenetan ere zehaztasun osoz erreparatzeko aukera izan dezagun. “Ez, ez, bihotza ez atera”, esaten diegu, aztoratuta, larrituta, inguruetara begira, inork ikusiko ote gaituen lotsaz, “bihotzaren lekua hor barruan dago, barruan dago seguru, kanpoa arriskutsua da bihotzarentzat. Sar ezazu bihotza barruan agudo, mesedez!” Berezko joera dute, ordea, eta ez dute kasurik egiten. Ez dira asko. Maitagarriegiak dira.

1998ko irailak 21

Egoskorra zen

Egoskorra zen. Ez zuen hasitakoa amaitu arteko onik izaten. Bolada luzea zeraman etxetik irten gabe, han bizilagun zituen intsektuen bizitzaren xehetasunen ikerketa sakonean buru-belarri murgildua. Telefonoz deitu eta gehiago irten behar zuela esaten zioten behin eta berriz hirian zituen ahaide eta adiskide apurrek, “kalean ibili”, “paseatu”, “egurastu”... Amorrarazi egin zuten azkenerako. Goiz batez, gosalduekin egin gabe, dotore jantzi, etxetik irten eta kalez kale ibiltzeari ekin zion, norabide jakinik gabe, serio eta kopetilun. Amorraren amorruez, egoskor, ez zuen gelditu nahi izan, eta hirian zehar bueltaka jarraitzen du oraindik ere etengabe. Egurasten.

1998ko abenduak 16

Logikaren, gizabidearen, jendetasun heziaren eta zintzotasun zibilizatuaren gailur izaten dira gure arteko bilkura batzuk: omenaldiak, bataioak, ezteiak, auzokideen bilerak... Horrelakoen ondoren sentitzen dut beste inoiz baino larriago –narrats eta zabar lotsagabea izateko gogoarekin batera–, poesiarik hautsi eta desitxuratuenaren premia.

1998ko abenduak 17

Ezeren kalterik ez izateko, ezer galtzeko beldurrik ez izatea da paseatzera irteten denaren zerua. Denbora pixka bat xahutzea beste kalterik ezin izan du, berez, paseoak, eta pasealariak denbora hori xahutzea ongi onartua du alde aurretik bere baitan, paseatzera irten denerako. Irakurtzea eta idaztea ere paseo moduan maite ditut nik, alde aurreko helburu jakinik gabe eta, horrenbestez, porrotaren arriskurik gabe. Ezeren kalterik edo ezer galtzeko beldurrik ez izatea izan dadila irakurlearen eta idazlearen zerua. Denbora pixka bat xahutzea beste kalterik ez dezala izan, berez, irakurketak edo idazketa lanak, irakurleak edo idazleak bere baitan alde aurretik onartua duena, alegia.

“Arriskua” deitzen diote adierazpide berriak bilatzeari, esperimintatzeari, idaztean korapilo endredatuak taxutzen aproba egiteari. Baina arratsalde pasa egindako paseoarekin gogo berotu zaionaren arriskuen parekoak dira horiek, alde aurretik gogo onez onartuak.

Baina neure kasuaz baino ez naiz ari, nire egungo irakurketa eta idazketa lanei buruz soil-soilik. Badira bestelako esperientziak. Batzuetan, leku batzuetan, irakurle eta

idazle batzuentzat, irakurtzeak edo idazteak ez du paseo bat egitera irtetearen batere antzik. (Ikus 1989ko abuztuak 25-b.)